

# Aingeruen eta deabruen istorio bat

Zurriola ikastola.  
Moldaketa eta itzulpena: Cristina Lasa

## PERTSONAIAK:

### Saguzarrak

Ama Saguzarra  
Alaba Saguzarra  
Seme Saguzarra

### Deabru Gizena Deabru Dama Bigarren Deabrua Beste Deabruak

Hiru Deabrua  
Lau Deabrua  
Bost Deabrua  
Sei Deabrua

### Aingeru Jauna Aingeru Andrea Aingeru Arrosa Beste Aingeruak

Aingeru Ori Lehena  
Aingeru Ori Bigarrena  
Aingeru Urdin  
Zerutiarra  
Aingeru Berde Argia



## ESZENATEGIAREN DESKRIBAPENA

Artadi itxi baten zabalgunean gaude. Eguzkia harriz eta sastrakaz josia azaltzen da. Arbolen enborrak beltzak dira, goroldioz estalita, laiotz. Publikoak urrutiko eta ezkutuko leku batean dagoelako ustea du. Giroan dagoen hezetasuna usaindu egiten da.

Begi-bistakoa da baso hartan ez dela inortxo ere ibili, bertan bizi diren basapiztiak izan ezik.

Eszenategiko atze aldean enbor handi bat dago, adarretan historik ez duena; adarrak lodiak dira, eta goroldioa darie. Adarretatik zintzilik, buruz behera, hiru saguzar daude -beltzez jantzita eta hegoetan ohial-ximurrak-. Tarteka, sarrerako musika entzuten den bitartean, saguzarrek astindu egiten dituzte hegoak

### LEHENENGO ESZENA

ALABA SAGUZARRA (Lurrean saltoka eta jirabiraka, hegoak zabalik, enborraren ondoan, inguruan jira eta bira. Beraren hizketaldia amaitutakoan, berriro zintzilikatuko da adarretatik) - Konta ezazu, kontatu, ama! Tira, bada, ez zaitez gaiztoa izan!

SEME SAGUZARRA (Beraren arrebak bezala eginez)- Kontaiguzu ipuin bat, ama, istorio bat, oso gustukoak ditugun horietako bat!

SAGUZAR txikiak pausatu egiten dira lurrean, batera eta bestera ibiltzen dira eszenatokian zehar, eta bertso bat bota ahala geratu egiten dira publikoari begira.

ALABA SAGUZARRA- (Zortziko handian)

Barlobento itsas-lapuraren  
ipuin zaharra kontatu  
gogoan dudan odoltsuena  
huraxe baita, esazu!

SEMEA SAGUZARRA-

Edo beldurri paregabea  
Zen Tino errege harena  
mandoa izanik beti soinean  
alkandora zeramana!

ALABA SAGUZARRA-

Ramiro kapitaina harena  
Huraxe entzun nahi nuke nik:

Tiro batez hamar hartz akatu  
zituen hark, hori duk, hori!

SEME SAGUZARRA-

Edo izar-malkoak botatzen  
Zituen Katalinarena...  
Edo maitagarrien ipuina...  
Edo ehun zaldunena...

AMA SAGUZARRA (Arbolatik jaisten da hegoak zabalik dituela)- Nahikoa dugu, isil zaitezte, temati halakoak! Zorabiatu egiten nauzue zuen leloekin... Isiltzen bazarete kontatuko dizuet ipuin bat, baina ipuin bakar bat!

SEME SAGUZARRA (Saltoka eta txaloka)- Biba! Biba!

ALABA SAGUZARRA (Anaiaren moduan. Ondoren, amaren oinetan eseri eta entzuteko prest dago)- Biba! Biba! Zein ipuin kontatuko diguzu, amatxo? Zein?

AMA SAGUZARRA (Pentsatu egiten du hegoak astinduz)- Bada, zera... Aingeruen eta deabruen istorio bat.

ALABA SAGUZARRA- Aingeruen istorio bat? Ederki!

SEME SAGUZARRA (Bera ere eseri egiten da ipuina entzuteko)- Deabruen istorio bat? Hau beldurra!

AMA SAGUZARRA (Kontaktetan hasten da. Argia itzaliz doa eta eszenategia erdi ilunpetan geratzen da, giro goxoa sortuz, publikoa ere kontaktetarako prest egon dadin)- Behin batean bazen, urrutiko baso zabal eta ezkutu batean.....

Bat-batean argiak itzali eta ahotsa isildu egiten da.  
Ilunpe hartan, hiru saguzarrek alde egiten dute.

## **Istorio Bat 2. eszena**

Argi guztiak pizten dira. Inguratzen ari diren zaratotsak entzuten dira, apatx-hotsak eta makilakadak lurrean.

Deabru talde bat agertzen da eszenategian. Ahuntz edo orein-taldea ematen du. Zaku-oihalez jantzirik daude eta aurpegiak margoturik dituzte; adarrak, txintzarriak zintzilik eta sardeak eskuetan dituzte. Beraien jantzien koloreak bortitzak dira: gorri bizia, ori sutua, tximistak botatzen dituzten kapa moreak... Deabruengandik kea eta sufre-usaina ateratzen da.

Haserre bizian daude denak, iltzeak mastekatzen dituzten bitartean; korrika dabilta, herrietako ferietan haurren atzetik ibiltzen diren deabruen moduan.

Deabru guztiak margoturik daramate bizkarraldean zenbaki handi bat, futbolariak eramaten dituzten bezala. DEABRU GIZENAK lehenengo zenbakia darama. Eszenategira sartzen diren BESTE DEABRUEK arbolen eta sastraken artean zerbaiten bila ari direlako planta egiten dute.

DEABRU GIZENA (*Amorruz eta garrasika*)- Zanpatu egingo ditut! Txiki-txiki utziko ditut! Harrapatzen badituzte gorriak ikusiko dituzte! Ez da madarikatu arrasto txikienik ere geratuko, ez horixe! More-more eginda utziko ditut zaplazteko eta belarrondoko! Ahhhhh! Ezin dut gehiago! Irrikatan nago aingeruak esku artean edukitzeko...! Larrutik ordaindu beharko didate!

BIGARREN DEABRUA (*DEABRU GIZENAREN maiordomoa da, bigarrena agintean; nagusiaren atzetik ibiltzen da zakur baten moduan, baina oso zuria Orain DEABRU GIZENAREN haserrealdia baretzen saiatzen da. Bizkarrean kolpetxoak emanaz, lasaitu egin nahi du*)- Pazientzia handia izan behar duzu, zaitzez: ez dizu-eta batere onik egiten horrela haserretzeak... Kontuz ibiltzen ez bazara, egunen batean zerbait gertatuko zaizu-eta... Atakeren bat edo....

DEABRU GIZENA (*Garrasika*)- Haserre, ni? Ni? Ni? Haserre nagoela diozu? Bai, Astakirtena! Zeu ere ez al zinateke haserretuko horiek, horiek... (*Zalantzan Oso gorrotagarria den zerbaiten bila hasten da*)...zeruko mami bigunak diren aingeru horiek alaba lapurtu izan balizute?

*Bat-batean intziri tristeak entzuten dira. BESTE DEABRUAK bilatzeari utzi eta burua astintzen eta arrangura-keinuak egiten hasten dira. DEABRU DAMA ateratzen da.*

DEABRU DAMA (*Negarrez ari da, kontsolamendurik gabe. Kapa more handi lehortzen ditu negar-malkoak*)- Ai!Ai!Ai! Hau mina sentitzen dudana! Hau tristura! Nire alabatxoa, hain gorritxoa, hain bizia, hain... hain... (Negarrez ari Bere buztantxoa, bere adartxoak, bere... Aaaaah!Aaaaaaaah!

*DEABRU GIZENA hurbildu egiten zaio DEABRU DAMARI, laguntzeko asmoz, edukazio handiz, paternalista. BIGARREN DEABRUA beraren atzetik doa, nagusia imitatzen. BESTE DEABRUAK biribilketan.*

DEABRU GIZENA (*Gero eta sutuago*)- Tira, tira... dena konponduko da... Benetan esaten dizut matxardak hartu eta hegoak kimatu egingo dizkiedala...

BIGARREN DEABRUA (*Mehatxuak errepikatuz publikoarentzat*)- Hegoak kimatu egingo dizkie...

DEABRU GIZENA (*Jarraitzen du, ahobero*)- Belarriak iltzez josiko dizkiet...



eginda  
haien

da.

lasaitu

horixe!  
dago.

batez  
da)

BIGARREN DEABRUA- Belarriak iltzatuko dizkie...

DEABRU GIZENA- Ostikoz zanpatuko ditut...

BIGARREN DEABRUA (*Zoruan ostikoka*)- Zanpatu egingo ditu...

DEABRU GIZENA (Zalantzan dago. Isilik geratzen da BIGARREN DEABRUA beraren zain dagoen bitartean. Pentsakor geratzen da une batez. Zigorrak eta ankerkeriak asmatzen ari da; keinuka ari da eta ukabilak astintzen ditu eskuetan ito nahi lukeen norbaiten lepoa balu bezala. BIGARREN DEABRUA bera imitatzen ari da, eten gabe: baiezkoa egiten du, konplizitate keinuak egiten ditu...)- *Burdinazko lapiko batean sartuko ditut, ur irakinetan, eta bor-bor-bor egingo dute, zopa-salda ederra!* (Keinuka imitatzen du lapiko batean irakiten ari den zopa-salda. Arnasa hartzen du) Sarde gori batean kordatuko ditut.....(*Berriro ere zalantzan jartzen da, ideien faltan edo*)....Zera egingo diet, zera.....

BIGARREN DEABRUA (*Ahopeka, memoria exkaxeko antzezleei apuntatzaileak testuak diktatzen dizkien bezala*)- Larrutu egingo ditu... Txikitu egingo ditu... Zaplaztekoz josiko ditu...

DEABRU DAMA (*Une batez negar egiteari utzita, DEABRU GIZENARI eta BIGARREN DEABRUARI begiratzen die, goitik behera. Mesprezuzko keinua egiten du*)- Tira, bada! Isil zaitezte, adar bigun horiek! Alferrikako horiek! Ez duzue ezertarako balio! Nire alaba nahi dut!

*DEABRU guztiak izutu egiten dira DEABRU DAMAREN ausardiaren aurrean.*

DEABRU GIZENA (*Harrituta, erreguka DEABRU DAMARI, aholpeka*)- Sssss, ssssss... Isil zaitez, ixo... Ez nazazu barrengarri utzi hauen guztien aurrean...

DEABRU DAMA- Isiltzeko diozu? Haragi puska belarridun hori! Ez naiz isilduko alaba nire lapikoan ez dudan bitartean, ez horixe! (*Bat-batean, negarrez hasten da. Eszenategian barrena, batera eta bestera doa, etsi-etsian*) Aaaaaah, aaaaaaaah! Alabatxo nirea! Non zaude? Nora eraman zaituzte aingeru horiek? (*Haserre, DEABRU GIZENARI eta BESTE DEABRUEI*) Eta zuek, tontolapiko horiek, haren bila hasi berehalaxe! Eta azkar! (*Berriz hasten da negar-zotinka*) Aaaaaah, aaaaah....!

BIGARREN DEABRUA (*Beste adiskideen bozeramailea da*)- Andrea, ejem...! Bazter guztiak miatu ditugu, bazter guztiak... Ez dugu ezta txokorik txikiena ere ahaztu. Ezta bat bera ere! Bat bera ere ez!

BESTE DEABRUAK (*DEABRU DAMARENGANA biltzen dira. Denak batera hasten dira hizketan*)- Bazter guztiak! Bazter guztiak! Bai, horixe! Ez dugu ezta txoko bat bera ere ahaztu. Bat bera ere ez!

DEABRU DAMA (*Negarrez*)- Aaaaah! Aaaaaaaah! Alabatxo maitea! Alaba nirea! Eta hau dena nire senar adar-makal horren jenio txarrarengatik!

DEABRU GIZENA (*Irainduarena eginez*)- Ni? Ni? Ni adar-makal? Hori entzun behar al dut?

BIGARREN DEABRUA (*Zuria*)- Bera? Bera? Bera, adar-makal? Hori entzun behar al da?

*BESTE DEABRUEK burua mugitzen dute, sinesgaitz. DEABRU GIZENAK besoak gurutzatu eta bizkarrez jartzen da, minduta.*

DEABRU DAMA (*DEABRU GIZENARI, salatuz*)- Bai, zu zeu, kankailu hori! (*BESTE DEABRUAK kikildu egiten dira*) Eta zuek, ganorabako horiek, zalapartaka eta builaka ibiltzeko bakarrik balio duzuen horiek! Aingeruak infernura jaitsi ziren egunean haiekin haserretu izan ez bazinete... Katu amorratuen moduan borrokan hasi izan ez bazinate... (*Negarrez*) Aaaaaah, nire alabatxo maitea! Aaaaaah, nire bihotzeko sugartxo! Ay, nire biziko bero goxoa! (*Ez du kontsolamendurik. Malkoek blai eginda utzi diote kapa.*) Aaaaaaaah! Haien kontra ostikoka eta zaplaztekoka hasi izan ez bazinete!

DEABRU GIZENA (*Bere burua justifikatu nahi du. Ahots tinkoa eta hizketa-modu agintaria erakusten du; gertatutakoa ezinbestekoa zela frogatu nahi du*)- Nik egin behar nuena baino ez nuen egin! Nire etxean neuk agintzen dut!

*BESTE DEABRUek horixe baieztatzen dute keinuka eta zurrumurruka*

DEABRU GIZENA- Aingeruak liskar bila etorri ziren gure etxera, gu zirikatzen, guri adarra jotzeko asmotan, gu iraintzen, gure kontra trufa egitera...

*BESTE DEABRUek DEABRU GIZENAREN hizketaldia txalotzen dute.*

BESTE DEABRUAK (*Denak batera*)- Bai jauna! Arrazoi du! Hori da hitz egiteko modua!

DEABRU GIZENA (*Hizlari baten modura jarraitzen du*)- Ah, ez eta ez! Nik ezin nuen inola ere hori permititu!

BIGARREN DEABRUAK(*Bera imitatuz*)- Ez, ez eta ez! Inola ere ez!

DEABRU GIZENA (*Jarraitu egiten du*)- Eta orduko parada hartan egurra banatu bazen... (*Keinu irmo bat egiten du*)...hala behar zelako izan zen, eta kito!

*BESTE DEABRUek baiezeko keinuak eta murmurioak egiten jarraitzen dute.*

BIGARREN DEABRUAK (*Aurreratu egiten da. Putz egiten du eta irribarre maltzurrez publikoarengana*)- Horixe banatu zela egurra! Zakukada eta gurdikada egur banatu zen! (*Eskuak igurtziz*) Baita Bet eta beraren amarentzat ere izan ziren ostikoak eta muturrekoak! Alde guztietatik zebiltzan zaplaztekoak, muturrekoak ostikoak, ukabilkadak... Hura liskarra! Gehiegizkoa, bai jauna! Ez zen mutikoen arteko borrokaldi bat izan, ez jauna. (*Berotu egiten da aingeruen kontrako borrokaldia gogoratzen duen neurrian*) Benetako borrokaldia izan zen: odol-zipritinak paretetan, hezur txikituak, sudur hautsiak eta belarri moztuak... Ja, ja, ja! Hura liskarra! Hura liskarra!

*BESTE DEABRUak, bero-beroan, saltoka eta barrezka hasten dira. Elkarren atzetik dabiltza, borrokaldia imitatuz*

HIRU DEABRUAK- Hura jipoia eman geniena! Aingeruek ez zuten espero halako astinaldia!

LAU DEABRUAK- Aingeruak eztiz eta azukrez eginda daude, eta xaboi-ponpak dirudite. Ezin dute jasan ezta haize-bolara bat ere.

BOST DEABRUAK- Ja! Gogoan al duzu bizirik lumatu genuen hura? SEI DEABRUAK- Ja, ja, ja! Bai! Eta lurtean etzanda, alfonbra baten moduan geratu zen beste hura?

BOST DEABRUAK- Eta zopa-lapikora bota genuen hura? Ja, ja, ja. Gehiegizkoa izan zen, gehiegizkoa!

DEABRU DAMA (*Haserre*)- Ixo, kaiku halakoak!

*BESTE DEABRUAK geratu egiten dira, bat-batean. Isildu egiten dira, izututa eta kikilduta. Berriz biltzen dira biribiltetan.*

DEABRU DAMA (*Salatuz*)- Zuen erruagatik ez dago nire alaba orain etxean. Eta non dago, eh? Batek daki nire deabrutxoak zer jasaten ariko den! Agian gosea eta miseria... Zuen erruagatik ez dago gure artean, hemen, etxean... Noski, gaizki portatu zineten-eta beraren lagun diren aingerutxoekin.

DEABRU GIZENA- Aingerutxo baten lagun egitea ere...! Nola bururatu zitzaion?

BIGARREN DEABRUAK- Noiz ikusi da deabru bat aingeru baten lagun izatea? Inoiz ere ez!

DEABRU GIZENA (*Lasaiago eta konplizitatez*)- Sekula ere ez, entzun! Inoiz ere ez! Hori zentzugabekeria !

HIRU DEABRUA- Hori zentzugabekeria galanta!

LAU DEABRUA- Hori zentzugabekeria itzela!

BOST DEABRUA- Hori erokeria!

SEI DEABRUA- Hori umekeria!

BIGARREN DEABRUA- Sekula ez da ikusi deabru bat aingeru baten lagun izatea. Sekula ere ez!

HIRU DEABRUA- Aingerutxo hura hain zen txuria! Nazkagarria!

LAU DEABRUA- Esnea bezain txuria!

BOST DEABRUA- Kotoi-mataza bezain txuria! Zeruko hodei-puska bezalakoa! Hau nazka!

BIGARREN DEABRUA (*Bazter batera eta atsekabetua doan DEABRU DAMA seinalatuz*)- Ixo! Ixo!

DEABRU DAMA (*Negarrez*)- Ai, nire alabatxoa! Nire deabrutxoa! Eta niri zer axola berak laguntxo hori nahi bazuen? Ai! Eta zer axola du beraren laguna aingerutxo bat izateak?

*Berehala inguratzen zaio DEABRU GIZENA, bizkarrean kolpetxoak emanez, adikor.*

DEABRU GIZENA (*Ozenki hitz egiten du. Erabaki garrantzitsua hartu du*)- Bigarren, aginduiezu soldaduei tropa osatzeko! Azkar!

BIGARREN DEABRUA (*Tente jarri eta soldadu baten agurra eginez*)- Bai, jauna! (*BESTE DEABRUei*) Tropa osatu! Azkar! Ar!

*BESTE DEABRUek tropa osatu eta tente jartzen dira, arlote antzera, barregarri. Elkarri kolpeka, bultzaka, haurren modura.*

DEABRU GIZENA (*Tropari bizkarra emanez, DEABRU DAMA kontsolatzen duen bitartean*)- Zenbat dira? Zenbatu itzazu!

*BIGARREN DEABRUA tropako BESTE DEABRUAK zenbatzen saiatzen da. Huts egiten du, ez baitaki zenbatzen, eta nahastu egiten da.*

BIGARREN DEABRUA (*Buruan hatz eginez. Behatzez zenbatzen ditu, behin eta berriz*)- Ea, bada... Bat, bi, hiru... Bat, bi... Lau, hamalau, hogeita hiru, zero eta bat bururako... (*Etsita, DEABRU GIZENARI deika*) Denak! Denak daude! Ez da bat bera ere falta!

*Gerrako musika entzuten da.*

DEABRU GIZENA (*DEABRU DAMA* *arendik aldentuz, troparen aurrean jartzen da. Hitez adoretzen ditu soldaduak*)- Gazteok! Deabruok eta deabrukoteok! Deabruok eta Adar Berdeok! Deabruzarrok eta Deabrutxok! Infernuak behar zaituzte! Etzaiozue huts egin! Infernuari eraso egin diote, traizioz! Badakizue aingeruek gure alabatxoa lapurtu digutela! Badakizue! (*Publikoari*) Haiek izan baitira, bene-benetan! Oilo busti horiek betidanik izan dute gure inbidia eta amorrua. Aingeruak bakarrik dira gai horrelako gaiztakeria handia egiteko! (*Tropari*) Bazter guztietan begiratu dugu eta ez dugu ezertxo ere aurkitu. Baso laiotz hau da begiratzeko geratzen zigun leku bakarra. Hemen aurkitzen ez badugu, zerura ere joango gara haren bila. Eta aingeruak, antzarrak ferratzera bidaliko ditugu!

*BESTE DEABRUak txaloka eta bibaka.*

DEABRU GIZENA (*Hizketa-modu berdinean jarraitzen du*)- Begiratu bazter guztietan! Miatu bazter guztiak! Sustraiak atera! Mugitu harriak! Ireki enborrak! Sar zaitezte sastraka artean eta leize-zulotxoetan! Hura aurkitzen duena... (*Tropari begira jartzen da. BESTE DEABRUAK tente jartzen dira, belarriak erne*) Gure deabrutxoak aurkitzen duena... (*BESTE DEABRUAK hanka puntetan jartzen dira, lepoa luze, begiak zabal-zabal. Saria zein izango den entzun nahi dute*) Hura aurkitzen duena....hura aurkitu duena izango da, eta kito!

*BESTE DEABRUAK zapuztu egiten dira, etsirik. Murmurioka hasten dira.*

DEABRU GIZENA (*Nagusituz*)- Nahikoa dugu! Bilatzen hasi! Agindua eman, Bigarren!

BIGARREN DEABRUA (*Hau ere etsita, gogogabetua*)- Bilatzen hasi! Ar!

*BESTE DEABRUAK bilatzen hasten dira, gehiegizko zalaparta atereaz. Alde egiten dute denek. DEABRU GIZENAK besotik heltzen dio DEABRU DAMARI eta hauek ere alde egiten dute. BIGARREN DEABRUA haien atzetik doa, keinuka, DEABRU GIZENAK ikusten ez dituen keinuak eginez, eta publikoari ere keinuka, dena gehiegizkoa.*

### **Istorio Bat 3. eszena**

*Artzain-musika lasaia, ederra, entzuten da. Aingeruak basoko zabalgunera iritsi dira. Koloretako tunikaz jantzita daude. Aingeru bakoitzak kolore bat du, eta bizkarrean bere izena idatzita darama. Urre koloreko ile-mataza kizkurrak dituzte; kartoizko hegoak, koloretako lumaz apainduta. Buruan lore txikiz egindako korotxoak daramatzate. Oinetan sandaliak. Hala ere, goibel eta triste azaltzen dira aingeruak. Kostata ibiltzen dira, nekatu antzean, kexaka eta aieneka. Lur jota daude, zaurituta daude -ubelduak begietan eta nonahi-; gaizki bendatuta datoz; batzuek beso bat dute eskaiolatuta, beste batzuek, oin bat. Borrokaldi anker batean galtzaille atera den tropa baten hondarrak dirudite. Ahal duten moduan esertzen dira.*

AINGERU ORI LEHENA- Hau mina! Hau min handia! AINGERU ORI BIGARRENA- Ezin dut gehiago! Ai,ai,ai,ai,ai! Ezin dut ezta ipurmasailak lurrean jarri ere egin! Ubelduz josita dauzkat-eta!

AINGERU BERDE ARGIA- Kexatu egiten zara? Ba, begiraidazu niri, oinez ere ezin dut-eta! (*Oin zaurituta erakutsiz*) Jipoi galanta eman ziguten!

AINGERU URDIN ZERUTIARRA- Zakurren modura jipoitu gintuzten! Zakurren modura, bai... baina zakur basatien modura!

AINGERU ARROSA (*Amorruzko ahotsez. Beso bat eskaiolaturik darama, eta buruan, soldadu baten kaskoa dirudien benda bat. Tarteka, begi gainera erortzen zaio bendajea, eta altxatu egin behar izaten du*)- Esana nizuen, bada, deabruekin jai genuela. Ez genuen haiekin fidatu behar. Jende gaiztoa da, basapiztiak, ideia onik ez duten horietakoak (*publikoari, ahots gozoaren planta eginez, norbaiti iseka egiten zaionean ateratzen den ahotsez*) "Ez zaitezte kezkatu.." "Etzazue gure beldurrik izan..." "Ez dugu zertan izaturik, deabruak jende jatorra dira..." (*Aingeruei ahots normalez*) Baita zera ere! Zeinek eman zigun deabruen etxera sartzeko ideia? Zer axola zaizkigu guri lapikoak eta txingarrak? Kea eta sua, erre egiten duten txinpartak eta sugarrak, horiexek dira infernua dauden gauzak! Eta beldur ematen duten animalia adardunak, gehiegi pentsatu gabe kolpeka hasten diren horietakoak!

AINGERU ORI LEHENA- Arrazoi duzu, maisu... baina, ai! Guk zera uste genuen...

AINGERU ARROSA (*Bestearen hizketaldia moztuz eta iseka*)- "Guk uste genuen... guk uste genuen..." Eta zeinek agindu dizue uste izateko, eh? Ez al zenekiten txiki-txiki eginda aterako ginela infernutik?



AINGERU URDIN ZERUTIARRA (*Bakezale*) Beno... atera egin gara, behintzat... AINGERU ARROSA- Baita zera ere! Atera bai, baina txiki-txiki eginda, zanpa-zanpa eginda, penagarri! (*AINGERU URDIN ZERUTIARRA*) Zu, hegoak puskatuta...

*AINGERU URDIN ZERUTIARRAK bere hegoei erreparatu eta etsi-etsian onartu egiten du. BESTE AINGERUek gauza bera egingo dute AINGERU ARROSAk hitz egin ahala.*

AINGERU ARROSA (*Jarraitzen du*)- Zuk, oinak zanpa-zanpa eginda dituzu... Eta zuek, mamutzarrak ematen duzue, Egiptoko momia pare bat, gauez munduan zehar ibiltzera irten ohi diren horietakoak... eta ni, begira nola nagoen!

*Ahots batek -izuturik dagoen ahots dardarati batek- eten egiten du hizketaldia.*

AINGERU JAUNA- Sa-sa-sar al g-gaitezke? De-deabrurik ba al d-dago?

AINGERU ARROSA (*Zeharo amorraturik, gorde egiten du haserrea eta publikoari zuzentzen zaio, iseka eta imitatuz*)- "Sar al gaitzke?" "Deabrurik ba al dago?" (*Haserre bizian*) - Hemen aingeruak besterik ez dago! Aingeru bendatuak! Zoritzarreko haragi puskak! Merkealditako prezio-erdiko aingeruak! Ordaindu bat eta eraman bi, ez dugu-eta ezertarako balio! Barregarri gaude!

*AINGERU JAUNA eta AINGERU ANDREA azaltzen dira eszenategian. AINGERU JAUNA bi makuluren gainean eta hegoak oker dituela agertzen da. Korotxoa lepoan bilduta darama, edo belarrietatik zintzilik, zisku egina. Beraren tunika kolore guztietakoa da. Bat zenbakia darama bizkarrean. AINGERU ANDREA ez dago zaurituta eta ez du inolako bendarik, baina negar-malkotan blai dator.*

AINGERU ANDREA- Ai, ai, ai! Hau pena, hau mina! Ezin dut gehiago! Hil egingo naiz! Ez dut bizi nahi, hil egin nahi dut! Ai, ai!

AINGERU JAUNA (*Beraren atzetik dator, irribarre tentela ezpainetan*)- Tira, bada, andretxoa, etzazu negarrik egin. Ez duzu nire zauriengatik negarrik egin behar, ez horixe! Gerra kontuak dira hauek eta...

AINGERU ANDREA- Baina zer uste duzu zuk, zu bezalako luma mordo batengatik negarrez ari naizela edo? Oker zabilta, oso oker.

AINGERU JAUNA (*Harrituta*)- Orduan?

AINGERU ANDREA- Nire alabatxorengatik ari naiz negarrez! Harengatik bakarrik! Nire aingerutxo maitea! (*Berrito negarrez*) Ai, ai, ai..! Non ote dago? Non ezkutatu ote dute? Zer egingo ote diote lapur gaizto horiek nire aingerutxo maiteari?

AINGERU ARROSA- Andrea, hau ez da negar egiteko ueña. Esan nizuen, bada, ez zela kontu onik aterako abiatu ginenean, errezeloa hartua bainuen... (*Publikoari*) Infernura abiatu ginen eta... badakizue... (*Berrito iseka eta imitatuz*) "Ez kezkatu..." "Deabruak jende jatorra dira, kaskarinak izatea, baina..." (*AINGERU ANDREAri*) Baita zera ere! Ongi merezia dugu jaso duguna, inozo halakoak! Banengoen bada, ni, adardun horiekin ez zegoela fidatzerik...

AINGERU ANDREA (*Bere burua justifikatu nahian*)- Anjelitak horrenbestetan eskatu zidan... Gu denok beraren laguntxoaren festara joatea nahi zuen, eta... nik ezin nion ezetzik eman...

AINGERU JAUNA (*Tinko eta zalantzarik gabe*)- Ongi esana! Alaba baten desioak sakratuak dira!

AINGERU ARROSA (*Ironiaz*)- Sakratuak? Sakratuak? Baita zera ere! Gutxienez bere laguntxoaren zein zen esan baligu... Eta haren familiartekoak zein ziren esan baligu sikiera...

AINGERU ORI LEHENA (*Pentsakor*)- Izan ere, nik ere neure zalantzak izan nituen leize-zulo hartatik jaisten eta jaisten hasi ginenean...

AINGERU ORI BIGARRENA- Leize-zulo hark amaigabea zirudien... Dena ilun zegoen, bero egiten zuen, sufre errearen usaina zerion... Zenbat maila jaitsi ez ote genuen, bada!

AINGERU BERDE ARGIA- Errezelo hartzeko modukoa zen egoera, bai...

AINGERU URDIN ZERUTIARRA- Beldur izateko modukoa zen...

AINGERU ARROSA (*Min egiteko moduan*)- Ja! Tximista baten moduan atzera egitekoa zen hura! Nik argi eta garbi esan nuen ez gindoazela leku onera, baina zuek, kaskagogor halakoak, baietz eta baietz, zazpi lagun sartuko ginela eta zazpi lagun aterako ginela... (*Berriz iseka eta trufaka*) "Ez izan beldur..." "Ez kezkatu, gonbidatuak gara eta gonbidatuei ez zaie minik ematen..."

*BESTE AINGERUek barre egiten dute gogo handirik gabe, intziri artean.*

AINGERU ARROSA- Eskerrak ez ziguten minik eman behar, bestela...

AINGERU JAUNA (*Ahal duen bezala esertzen da*)- Aiiii! Baina, azken batean, gerra, gerra da... Ulertu egin behar duzue. Guk, nola jakingo genuen, bada, gure alabatxoa deabrutxo baten laguna zela, eh? Egia esan, galdetu egin beharko genion alabatxoari baina...

*AINGERU ANDREA berriro negarrez.*

AINGERU ANDREA- Ai, ai, ai! Hau zoritxarra!

AINGERU ORI LEHENA- Hau ezin zen imajinatu ere egin...

AINGERU ORI BIGARRENA- Zentzugabekeria... ai!

AINGERU BERDE ARGIA- Hutsegite galanta!

AINGERU URDIN ZERUTIARRA- Ume-kontuak...

AINGERU ORI LEHENA- Baina deabrutxoa txingarra bezalakoa zen... Hari begiratze hutsarekin erre egiten zinen eta!

AINGERU ORI BIGARRENA- Hain zen gorria, ukitze hutsarekin zikindu egiten zinen!

AINGERU BERDE ARGIA- Eta ikatza bezain beltza! Hau nazka!

AINGERU URDIN ZERUTIARRA- Bada, familia ere... Ai! Artalde bat!

AINGERU ARROSA (*Publikoari*)- Ez ziguten utzi ezta iristen ere...! Gu ikusi eta barrezka hasi ziren... Eta gero, hura desastrea! A ze jipoia!

*BESTE AINGERUAK keinuka hasten dira, zirrara sentituz, AINGERU ARROSAren hitzak entzutean jaso zuten egurra gogoratzen dutelako. AINGERU ARROSA zutitu eta gertatutakoaren laburpena egiten hasten da.*

AINGERU ARROSA- Hura desastrea! Migel Deuna, non zinen horrenbeste behar zintugunean? Kolpeak goitik behera erori zitzaizkigun, sardeen zitzadak jaso genituen, negu osorako egurra bildu genuen! Korrika eta saltoka lapikoen artean, olio irakinaren zipriztinak banatzen ziren bitartean! Sua eta beroa....Oraindik ezin dut ulertu nola atera ginen bizirik hartatik...

AINGERU URDIN ZERUTIARRA- Sarde haiek...

AINGERU ORI LEHENA- Atzazal zikin horiek...

AINGERU ORI BIGARRENA- Eta adar horiek...

AINGERU BERDE ARGIA- Eta apatx horiek... Ai, ai, ai!

AINGERU ARROSA (*Hizketaldia moztuz*)- Laburbilduz, gu bertara meriendatzera gindoazela, eta ia-ia gu izan ginen haien merienda! Ja!

AINGERU ANDREA- Eta orain, zer egingo dugu? Nola jakingo dugu zer gertatu zaion gure Anjelitari? Non ezkutatu ote dute deabru horiek? (*Negarrez*) Aaaaah! Han da gauza gutxi! Horren txikia eta samurra! Ai, ai, ai! Non gorde ote dute? Non?

AINGERU JAUNA- Etzazu negar gehiagorik egin! Begiratuko dugu baso honetan aurkitu arte... (*Bat-batean, harropuztuz*) Borrokaldi bat galdu dugu, baina ez gerra! Nonbait edukiko dute gordeta. Borrokaldian kendu digute, borrokaren erdian, haien kolpe eta zartadak saihestu besterik ezin genuenean egin... Aurkitu egingo dugu! Bai, horixe! Zeruaren ohorea jokoan dago! Beharrezkoa baldin bada... behar-beharrezkoa baldin bada... itzuli egingo gara infernura haren bila!

AINGERU ORI LEHENA (*Erdi zorabiatuta*)- Infernura berriz? Eeeeeeez!

*BESTE AINGERUek, haizea emanez, suspertu nahi dute, bere onera ekarri nahi dute. Baita lortu ere. AINGERU ANDREA negarrez ari da, ezin kontsolatuz. Musika militarra entzuten da.*

AINGERU JAUNA (*Zutitu egiten da, itsaso eta lurreko buruzagi baten moduan*)- Oraingoan etzazue beldurrik izan!

*AINGERU ARROSAk ez sinestuaren keinuak egiten ditu, publikoari begira.*

AINGERU JAUNA- Etzazue beldurrik izan! Oraingo honetan geu izango gara haiei ezustean eraso egingo diegunok! Ongi armaturik, bonba pare bat hegal azpian, kainoi bana oinetan, ezpata izugarri bat hortzetan...

AINGERU ARROSA (*Publikoari*)- Ikusten ari naiz... Inauterietako desfile batera joateko moduan...

AINGERU JAUNA (Jarraitzen du kasurik egin gabe)\*- Oraingo honetan ezingo gaituzte bota... Maniobra ikaragarri bat prestatuko dugu... Oso ongi pentsatutako maniobra bat izango da, Napoleon bera inbidiaz negarrez hasteko moduko maniobra bat... Ah! Entzun! Entzun zer pentsatu dudana! Aurrena...

AINGERU ANDREA (*Desesperaturik*)- Eta nire alabatxoa, zer? Anjelita nire aingerutxoa, zer? Zer gertatuko zaio? Zergatik ez gara haren bila hasten?

*\*AINGERU JAUNAK ez dio kasurik egiten. BESTE AINGERUengana inguratu eta haiekin esertzen da. Ahopeka azaltzen ditu bere eraso eta mendekurako planak. BESTE AINGERUek baiezkota egiten dute burua mugituz, beldurrezko keinuak eginez, elkarri barrezka eta ukondoka, beren buruari animuak emateko...*

AINGERU ARROSA da mesfidantza sentitzen duen bakarra.

AINGERU ANDREA negarrez ari da, baina inortxok ere ez dio kasurik egiten.

AINGERU ARROSA da hura kontsolatzen duen bakarra.

## Istorio Bat 4. eszena

*DEABRUAK eszenategira agertzen dira, garrasika eta joareekin iskanbila handia sortuz. Ustekabeko eraso da hau. AINGERUAK, ezustean harrapatuak, haiek ere garrasika hasten dira, kikilduta, eta ihes egiten saiatzen dira, noraezean. Korrika saio batzuen ondoren, azkenik, enbor handiaren inguruan biltzen dira AINGERUAK, publikoari begira, enbor hura gaztelu baten azkeneko gotorlekua bailitzan. DEABRUek inguratu egiten dituzte.*

BIGARREN DEABRUA- Ja, ja, ja! Harrapatuta zaudete! Zuenak egin du! Gaur azkeneko luma ere galduko duzue! Ja, ja, ja!

*BESTE DEABRUek, barrezka, AINGERUei eraso egiten diete. Sardeez eta makilez zirikatzen dituzte. Erasotuak, makal-hostoen moduan, dardarka ari dira. Elkar besarkatuak daude. Zeharo izututa daude.*

HIRU DEABRUA- Ja! Heldu horri, oilo bustiok!

LAU DEABRUA- Buuuu! Orain ikusiko duzue! Jai duzue gurekin!

BOST DEABRUA- Frijitu egingo zaituztegu! Ja, ja, ja!

SEI DEABRUA- Ongi egosita, oilaskoak lapikoan bezala!

*DEABRU GIZENA azaltzen da eszenategira, harro, irabazle moduan, indioilar baten antzera, puztuta.*

DEABRU GIZENA -Azkenean harrapatu ditugu! Jadanik ez dugu Mariaren bila ibili behar izango sukaldean barrena! Hona hemen aingeruak, denak ongi bilduta, denak prest..! Azkenean zatitu egingo ditut! Tripak aterako dizkiet! Sardean sartuko ditut! (*Zalantzan*) Zera egingo diet... Zera...

BIGARREN DEABRUA (*Beraren ondora, losintxaka*)- Denetik, gaur denetik egingo diezu! Denetik!

DEABRU DAMA (*Korrika irten da eszenara, harrituta*)- Ai! Zer entzuten ari naiz? Zer gertatu da hemen? Hauek builak eta iskanbilak! Zer arraio?... Baina, baina... aingeruak dira!

DEABRU GIZENA (*Hain dago harropuztuta, kapa barruan ere ezin sarturik dabil*)- Hemen dituzu, harrapatuta! Horixe izan dela istilua! Entzun duzun zarata hori gure garaipenaren hotsa izan da, borrokaldian irabazleen oihuak... Erabateko garaipenaren musika entzun duzu! (*Publikoari, kontalari baten emozioz*) Ja! Gehiegizkoa izan da! Etsaiak basoan zeuden ezkutaturik, itzal eta sastraken artean gordeta, arroken atzean, orbelaren azpian... Halako batean, aurkitu egin ditut eta eraso egin diet nire ejertzito menperaezinarekin, eta inguratu egin ditut hementxe bertan, menperatu arte...

*BESTE DEABRUek keinuak egiten dituzte DEABRU GIZENAK borrokaldiaren berri ematen duen bitartean.*

DEABRU GIZENA (*Jarraituz*)- Ba, izango ziren, milatik gora, bai... milatik gora; behar bada, milioitik gora izango ziren, eta denak gure aurrean, tinko, arma zorrotzak eskuetan zituztela, begiratze hutsarekin odola isuri eta ebaki egiten zuten armak, bai; baina, ai! Hau garaipena! Deskribaezina! Maila gorenekoa! Sekulakoa! (*Zalantzan hasten da eta behatzak klaskatuz, nola jarraitu ez dakiela antzematen zaio*) Mmmmm... zera...

BIGARREN DEABRUA (*Ahopeka, berriro ere apuntatzailearena eginez*) - Izugarria! Berebizikoa! Aparta! ... Guay!

DEABRU DAMA (*Denbora guztian deseroso eta urduri egon da*)- Baina, non dago gure alabatxoa? Non ote dute? Aurkitu al duzue?

DEABRU GIZENA (*Bere kopetan kolpetxo bat emanez*)- Ah, bai! Deabrutxoa, noski! (*Barrezka hasten da, zurikerietan*) Je, je, je! Ez nintzen berarekin gogoratzen, hain nengoen borrokaldian sartuta...

DEABRU DAMA (*Pasa-pasa eginda*)- Pikutara borrokaldia eta borrokaldiondoa! Gure Deabrutxoa itzul diezagutela eta kito, doazela bakean!

DEABRU GIZENA (*Haserre*)- Nola bakean? Hau ezinezkoa da! Gerra, gerra da, eta bere arauak ditu... Utzi niri eta ikusiko duzu... (*AINGERUei*) Ea, ba, zuek, non dago gure alaba?

*Isilune ikaragarria egiten da. AINGERUak elkarren artean hasten dira hitz egiten, galdera ulertu ez dutelako aurpegia jarriz. BESTE DEABRUek, sardeak prest erasorako, mehatxu egiten diete.*

DEABRU GIZENA (*Urduri*) - Non dagoen ari naiz galdetzen! Esaidazue, azkar baino azkarrago! Hitz egizue, bestela zartaginean erreko zaituztegu bizirik, edo txingarrak sartuko dizkizuegu belarrietan... Non duzue Deabrutxoa, eh?

*AINGERUak berriz hasten dira elkarri galdezka. Publikoak jakin behar du haiek ez dakitela ezer Deabrutxoaz.*

AINGERU JAUNA (*Zapi txuria altxatuz, bakea eske. Ahots dardaratiaz hitz egiten du, beldurtuta*)- Zein De-a -bru-txo?

DEABRU GIZENA- Nola zein deabrutxo? Gurea! Bakarra! Munduko onena! Ba al da bera bezalakorik munduan, eh?

DEABRU DAMA (*Eten egiten du hizketaldia. DEABRUengana zuzentzen da, negarrez eta erregutuz*)- Gure alaba, Aingeru Jauna... Nire alaba maitea, nire bihotzeko sua, nire itxaropenen txingartxoa... Non dago? Non duzue? Gu bisitatzera infernura jaitsi zinatenetik ez dugu ikusi... Ni bahitu nahi banauzue, aurrera, baina bera, gaixoa, zer kalte egin dizue, horren txikia izanik? Itzul iezaguzue, eta zoazte bakean! (*Negarrez*) Aaaaah! Aaaaaah! Nire alabatxoa!

DEABRU GIZENA- Zaude pixka bat! Zaude pixka bat! Etsaiarekin ez da horrela hitz egiten! Gerra-arauak errespetatu behar dira!

AINGERU ANDREA (*Bildutakoen artetik atera eta DEABRU DAMAren gana hurbiltzen da*)- Emakume, emakume... Guk ez dugu zuen Deabrutxoa, eta jakin ere ez dakigu non dagoen...

*AINGERUek baiezkota egiten dute buruaz. Deabruak atzera egiten dute, harriturik, sinistu ezinik. DEABRU GIZENAK amorrus josita dago, arnasotsa atereaz.*

DEABRU GIZENA- Zeeeeeeeeer? Ez da posible!

AINGERU ANDREA- Eta gure alabatxoa, non dago? Guk ere ez dugu gehiago ikusi infernura bisita egin genuenetik. Emaiguzue, neu ere ezin naiz-eta bera gabe bizi..... Itzul iezaguzue nire Anjelita!

AINGERU GUZTIAK (*Denek batera hitz eginez*)- Bai, horixe! Itzul diezagutela! Nahikoa da! Itzul diezagutela!

DEABRU DAMA- Baina, baina... (*AIINGERU ANDREA*ari) Guk ez daukagu Anjelita... Jakin ere ez dakigu ezer Anjelitaz... Guk zera uste genuen, zuek zenutela gure alabatxo eta...

AIINGERU ANDREA (*Eskuetatik heltzen dio, hunkituta*)- Eta guk uste genuen zuek zenutela gure Anjelita...

DEABRU GIZENA (*Harrituta, sinistu ezinik*)- Nola? Gezurra! Gezurretan ari zarete! Gerra!

AIINGERU JAUNA (*Zapi txuria lurrera botaz*)- Zatoz hona! Zatoz hona eta ikusiko duzu! Gerra! Gerra!

*Eszenategian iskanbila handia sortzen da: gerrarako prestakuntzak, garrasiak.*

BIGARREN DEABRUA (*Publikoari, buruan hatz eginez*)- Guk uste genuen haiek zutela gurea, eta haiek uste zuten guk genuela haiena; baina guk ez genuen haiek uste zutena, eta haiek ere ez dute... buf! Hau nahaste-borrastea!

DEABRU GIZENA (*Gerrarako prestakuntzekin suspertuta*)- Bigarren, tropari deitu! Zenbatu itzazu!

*BESTE DEABRUak korrika hasten dira, formazioan bilduz. Eszenategiaren albo batean prest daude behin-betiko borrokaldirako. AIINGERUak ere, beren biltokian, gerrarako prestatu egiten dira.*

BIGARREN DEABRUA (*Zenbatzen ahalegintzen da, baina berehala uzten dio zenbaketari*) - Bat, bi... bat, bi, hamahiru... Oraindik denak daude!

DEABRU GIZENA- Presta gaitzen, bada, azken erasoaldirako! Ja, ja, ja! Hortik aterako ditugu... bizirik ala hilik! Osorik ala txikiturik! Ja, ja, ja! Gerra! Gerra!

*BESTE DEABRUek garrasi egiten dute, aztoratuta.*

DEABRU GUZTIAK (*Garrasika*)- Gerra! Haienak egin du! Gora gerra!

*Setiatuen taldea ere aztoratuta dago.*

AIINGERU JAUNA (*Garrasika*)- Presta gaitzen! Hi, hemen! Honako hau, hor! Gerra, azkenean, gerra piztuko da! Etzazue atzera egin! Ah! Gerra! Gezurtien kontra! Deabruen kontra! Heriotza haientzat!

AIINGERU GUZTIAK (*Multzo handian*) - Gerra! Gerra! Deabruen kontra! Gora gerra! Akabatu egin behar ditugu!

*Bat-batean eten egiten da ekintza. AIINGERUak eta DEABRUak geldirik daude, kartoizko panpina pintatuen antzera, baina elkarri eraso egiteko zorian baleude bezala. Argitan geratzen da eszenategi aurrea bakarrik. Han, DEABRU DAMA eta AIINGERU ANDREA, prestatzen ari denaren aurrean izaturik, elkarren artean hizketan ari dira, hunkituta.*

DEABRU DAMA- Andrea, gure alabak...

AIINGERU ANDREA- Non daude? Non dira?

DEABRU DAMA- Ahal bagenu...

AIINGERU ANDREA- Ahal dugu. Ez dezagun denbora gehiagorik gal... Bila ditzagun!

DEABRU DAMA- Bai, bila ditzagun! Gerrak ez du sekula ezertarako balio izan, eta are gutxiago orain... Bila ditzagun geuk...

AIINGERU ANDREA- Itsasoz eta lurrez!

DEABRU DAMA- Zeruaz eta infernuaz! Munduko bazter guztietan barrena!

AIINGERU ANDREA- Aurkitu egingo ditugu!

DEABRU DAMA (*Itxaropenez*)- Bai, horixe! Bizialdi osoa horretan eman behar badugu ere!

*Eszenategia berriz argitan eta eten egindako ekintzak jarraitu egiten du. Hala ere, BESTE AIINGERUek eta BESTE DEABRUek utzi egiten diote jarrera bortitzari. DEABRUek bertan behera uzten dute beren formazioa; AIINGERUak beren lekutik aldentzen dira. Poliki-poliki, bi emakumeengana biltzen dira. Entzun egiten dute. Begiak zabal-zabal, suspertu egiten dira. Itxaropenerako eta bakerako hotsak entzuten dituzte. DEABRU GIZENAK eta AIINGERU JAUNAK, haiek ere oso poliki, atzera egiten dute eta taldetik atera egiten dira. AIINGERUAK eta DEABRUAK nahastuta orain.*

DAMA DEABRUA- Beharrezkoa baldin bada, itsaspean ere begiratuko dugu. Bazter guztiak miatuko ditugu haiek aurkitu arte!

AIINGERU ANDREA- Zer axola du Deabrutxoa gorri-gorria izateak, eh? Piperrak ere gorri-gorriak dira, eta goxo askoak dira ongi erreta!

DEABRU DAMA- Zer axola du Anjelita odei puska bat bezain txuria izateak, eh? Hain dira leunak hodeiak!

AIINGERU ANDREA- Eta txingarrak beti izaten dira onak berotzeko!

DEABRU DAMA- Eta kotoia beti izaten da erabilgarria!

AIINGERU ANDREA- Eta zer axola du zuek apatxak izateak?

DEABRU DAMA- Zer axola du zuek hegoak izateak? Begiak gureak bezalakoak dituzue, berdin-berdinak... Eta neskatoek begietara begiratzen zioten elkarri!

AIINGERU ANDREA- Eta begiradarengatik maite zuten elkar haiek, beldurrik eta errezelorik gabe... Bila ditzagun azkan, baliteke arriskuan izatea!

DABRU DAMA- Bila ditzagun gu biok elkarrekin, haiek ere elkar maite zuten eta!

AIINGERU ANDREA- Goazen, bada, munduan zehar ibiltzera!

DEABRU DAMA- Goazen, azkar, oinak hauts bihurtu arte!

*Badoaz oso animaturik biak. Mirespenez beterik, beste guztiak haiei begira geratzen dira. Une batez, harridura eta isiltasuna dira nagusi.*

AIINGERU ARROSA- Mutilok, andre horiek ez dira txorakeriatan ibiltzen, ez horixe!

BIGARREN DEABRUA- A-a-arraioa! Ho-hori da sasoia, hori!

AIINGERU URDIN ZERUTIARRA- Ez dute denbora alferrik galtzen gerra-kontuekin, ez...

HIRU DEABRUA- Alabak maite dituzte, eta haien bila doaz... eta kito!

AINGERU ORI LEHENA- Zer iruditzen zaizue?

LAU DEABRUA- Arrazoi dutela! Bi neskatoak galdu egin dira eta gu, hemen...

AINGERU ORI BIGARRENA- Gu hemen tontoarena egiten! Denbora alferrik galtzen, ergel halakoak!

BOST DEABRUA- Horixe ergelak! Gerra egitea nahi zuten... zauriz josita amaitzeko!

AINGERU BERDE ARGIA- Etzaizkidazu zauriak aipatu, mesedez! Nahikoa izan genuen-eta aurrekoan!

SEI DEABRUA- Orduan, zer uste duzue? Zer egin behar dugu?

AINGERU URDIN ARGIA- Dagoeneko neskatoen bila abiatuta beharko genuke!

HIRU DEABRUA- Bai, baina... bi horiek? (*DEABRU GIZENA eta AINGERU JAUNA seinalatuz*) Zer esango dute horiek?

AINGERU ARROSA- Nahi dutena esan dezatela! Orain badago zer egin denontzat. Aurrena, neskatoak aurkitu, kosta ala kosta!

BIGARREN DEABRUA- Niregatik, egin dezatela garrasi, nahi badute! Egin dezatela beraiek gerra! Neskatoak aurkituko bagenitu, ezin poz handiagorik izan!

DEABRU GUZTIAK ETA BESTE AINGERUAK (*Denak batera hizketan*)- Goazen, bada, goazen haien bila! Goazen! Goazen Deabrutxoa eta Anjelita bilatzera!

*Azkar egiten dute alde denek, AINGERU JAUNAK eta DEABRU GIZENAK izan ezik. Haiuek bakar-bakarrik geratzen dira eszenategiaren erdian. Garrasi egiten dute, alferrik, azkeneko aginduak emanez.*

DEABRU GIZENA- Itzuli hona, koldar halakoak! Gerra gerra da! Zatozte hona oraintxe bertan!

AINGERU JAUNA- Ez entzun, ez entzun! Segi gerra egitera! Gerrara!

*Argiak moteldu egiten dira, eta eszenategira, jira eta bira, saguzarrak ateratzen dira.*

## **Istori Bat 5. eszena**

*Ilunpetan geratu dira DEABRU GIZENA eta AINGERU JAUNA, deskontsolaturik, geldirik. Saguzarrak beraien inguruan hegaldaka dabilta eta iseka eta trufa egiten diete. Azkenean, gelditu egiten dira eta lehenengo eszena bukatutakoan zeuden bezalaxe geratzen dira.*

AMA SAGUZARRA (Kontaktarekin jarraituko balu bezala)\*- ...eta deabruak eta aingeruak Deabru Dama eta Aingeru Andrearen atzetik abiatu ziren, eta Anjelita eta Deabrutxoa bilatzen hasi ziren...

ALABA SAGUZARRA (*Jakin-minez*)- Eta aurkitu al zituzten, ama? Aurkitu al zituzten?



SEME SAGUZARRA- Aurkitu zituzten ala ez? Esaiguzu, arren! Jakiteko irrikatan gaude-eta!

AMA SAGUZARRA- Bai, bai... (*Irribarre zabala egiten du*) Horixe aurkitu zituztela! Ongi ezkutaturik zeuden, nahita ezkutatuta gainera!

ALABA SAGUZARRA (*Harrituta*) - Nolaaaaa? Nahita ezkutatuta?

SEME SAGUZARRA (*Hau ere harrituta, sinestezinik*)- Nahita ezkutatuta zeudela? Nola da posible?

AMA SAGUZARRA- Asper-asper eginda zeudelako aingeruen eta deabruen arteko liskarraz, beren gurasoen arteko borrokaz... Neka-neka eginda zeuden gerra kontuaz!

ALABA SAGUZARRA- Hori bururatzea ere! Ni ez nintzen ausartuko!

SEME SAGUZARRA- Ezta ni ere! Nik uste dut hau guztia ipuin bat besterik ez dela...

AMA SAGUZARRA (*Barrezka*) - Ja, ja, ja... Baliteke... Baliteke hau dena ipuin bat besterik ez izatea... Elkar maite zuten begi batzuen istorioa...

*SAGUZARRak lurretik altxa eta berriro hasten dira hegaldaka lorategi bakarti bateko estatua moduan eszenategiaren bazter batean geldirik geratu diren bi tontolapiko haien inguruan. Jira eta bira dabilzan bitartean, SAGUZARRAK bertsoak botatzen dizkiete. Teloia behera jaisten da, poliki.*

ALABA SAGUZARRA- (*bertsotan, zortziko handian*)

Barregarri geratu zaizkigu  
Hortxe dauden bi lagunak

SEME SAGUZARRA-

Aingeru Jauna, hegoak hautsi  
Eta Deabru Gizena

ALABA SAGUZARRA-

Liskarrak eta borrokak dira  
Haien betiko ametsak  
Alabek esan zuten batera:  
"Kito eta nahikoa da"!

SEME SAGUZARRA-

Gerraz asperturik bizi gera  
Bai zeruan eta bai lurrean  
Bi txoro horiek nahi izanda ere  
Akabo, kito borroka!

ALABA SAGUZARRA- (*Aurrekoaren doinua errepikatuz*)

Neskatok elkarri begiratu  
Ziote goxo-goxoan  
Laguntasuna izan dadila  
Gorrotoaren etsaia

(*Teloia behera jaisten da*)

MOLDAKETA ETA ITZULPENA: Cristina Lasa